

## Euskal itzultzailerik «onena»

Karmele Uribesalgo Alzola :



Modela aurkezteko bidalitako prentsa oharra, jatorrizkoa eta Modelak itzulia. BERRIA [Tamaina handiagoan ikusi](#)

«Inoiz ikusi ez diren kalitateko itzulpenak eskaintzen ditu Modelak». Hala adierazi dute Elhuyarrek eta Mondragon Linguako ordezkariak itzultzaile automatiko berria aurkeztean. Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenak egiten ditu. Euskara zabaltzea du helburu, baita Euskal Herriko eleaniztasunean eragitea ere. Erabilgarri dago jada, [www.modela.eus](http://www.modela.eus) webgunean. Erabiltzaile bakoitzak hilean 2.000 hitz itzultzeko aukera izango du, dohainik. Kopurua handitzeko, izena eman, eta kuota bat ordaindu behar da.

Euskararen morfologiak ezartzen dituen «mugak» gainditu dituztela adierazi du Leire Cancio Elhuyarrek zuzendari nagusiak. «Euskararen hizkuntza teknologiak beste hizkuntzen pare jarri dira». Bi urtez beste zenbait euskal enpresarekin lanean aritu ostean garatu dute tresna. Proiektuan parte hartu dute Vicomtechek, Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa taldeak, ISEAk, Ametzagaiñak eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoak.

Itziar Cortes Elhuyarrek itzulpengintzarako teknologien arduradunak jakinarazi du Modela «erabilerraza eta azkarra» dela. Bestelako itzultzaileetan bezala, erabiltzaileak testu bat emango dio sistemari, eta horrek itzuli egingo du. Testu prozesadoreetako dokumentuak eta HTMLak itzultzeko gai ere izango da

Modela. Horrez gain, Cortesek azpimarratu du konfidentziasuna bermatuko duela tresnak; itzulitako testuak ez dira gordeko.

## **Teknologia aurrerakoa**

Modela erraz erabiltzen bada ere, garatu duten sistema informatikoa ez da hain sinplea; Sare Neuronaleko Itzulpen Automatikoa erabili dute. Adimen artifizialaren bitartez jarduten du; «ikasitako» funtzioak darabiltza sistemak. Igor Ellakuria Mondragon Linguako itzulpengintzarako teknologien arduradunak azaldu du sistemak lan egiten duela jada itzulita dauden testuak erabilia. Kontzeptuak sailkatzeko gai dela ere azpimarratu du. «Orain arte erabili diren teknologiak baino askoz hobea da». Izan ere, azken urteetan, erregeletan eta estatistiketan oinarritutako teknologiak erabili izan dira itzulpenak egiteko. Erregelekin jarduteko, sistemari hizkuntza arauak aurkezten zaizkio, eta horren bitartez egiten du lan. Estatistiken kasuan, berriz, hitz bat bestearen alboan agertzeko probabilitatea aztertu ostean egiten dira itzulpenak. Bi metodo horien bitartez, ez da lortu testuak behar bezala itzultzea. Adimen artifizialak mugak apurtzeko bidea eman du, malguagoa baita.

## **Etorkizuneko tresna**

Modela «mugarri» bat izan daiteke, Cortesen iritziz. «Oraingoan, web aplikazio bat da, baina uste dugu askoz ere gehiago eman dezakeela». Lagungarria izan daiteke aplikazio berriak sortzeko, hala nola laguntzaile birtualetarako eta sakelako telefonoetako aplikazioetarako. Hainbat sektoretan ere eragin nahi dute; besteak beste, osasunean, administrazio publikoan eta ikus-entzunezkoetan. «Behin itzulpen sistema edukita, hobetzen jarraitu behar dugu, eta ahalegindu behar dugu tresna hau beste esparru batzuetara zabaltzen», aitortu du Ellakuriak. Hala ere, Ane Ruiz de Zarate Mondragon Linguako itzulpengintza zuzendariak argitu du Modela ez dela itzulpenak egiten dituzten profesionalen kompetentzia: «Makinak ez ditu profesionalak ordezkatzeko, baina ezin diegu aterik itxi aurrerapenei».

Izan ere, etengabe egiten dira berrikuntzak teknologian. «Azken bi urteetan hizkuntza teknologian egindako aurrerapena azken hamar urteetako baino handiagoa da», ziurtatu du Canciok. Itzulpen merkatuan izan dezake tokia Modelak; Languneraren merkatu ikerketa baten arabera, ia 500 milioi hitz inguru itzuli ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

[Izan BERRIAlaguna](#)

## **Gaiak**

## Albiste gehiago



### Martxan da Gasteizko tranbiaren Salbururako luzapena

Edurne Begiristain

Lehen eguna du gaur tranbiaren adar berriak. ELAk eta LABek protesta egin dute ETSko langileek hitzarmenik gabe jarraitzen dutela salatzeko.



«Zuk %200 eman behar duzu beti»

Arantxa Iraola

Konta daiteke, batetik, Alaitz Ziarsoloren istorioa; haren gorrieriarena, trabena. Bestetik, Noelia Dacostarena; paralisiarena, gutxiespen guztiena. Biak batera kontatuta, ordea, gardenago ikusten da dena: gizartea, elbarritasunak tarteko, motza da sarri, eragozpenez josia. Baita EHUUn ere.



### Grebara deitu dituzte Arabako landa eremuko osasun zentroetako langileak hilaren 27rako

Edurne Begiristain

ELAk deitu du lanuztera. Osakidetzaren lan berrantolaketak osasun arretaren kalitatea eta langileen baldintzak okertuko dituela salatu dute.



## Moto gidari bat hil da Luzaiden, bidetik aterata

### Berria

Errepidetik atera, eta zirkulazio seinale bat jo du. Ipar Euskal Herrirako noranzkoan zihoan, beste bi moto gidarirekin batera.

## Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.